



Egoera ekonomikoa eta
Merkatuak
ASTEKO LABURPENA

2017ko apirilaren 20tik apirilaren 24rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA.
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EB: ONDASUN IRAUNKORREN AGINDUAK



Datuaren analisia


ibrikei egindako ondasun iraunkorren eskaerak % 14 jaitsi ziren martxoan (aurreikusitakoa: -,9), hegazkingintza sektorearen kolapsoaren ondorioz. Hala ere, garraioak (hegazkinak) npoan utzita, behin betiko datuak % 0,2ko zuzenketa izan zuen, otsailan erregistratutakoa ino apalagoa (% 0,6). Hortaz, merkatuak irakurketa positiboa egin zuen.

Adierazlearen azalpena

ondasun iraunkorren eskaeren indizeak fabrikatzaile nazionalen berehala eta etorkizunean tregatzeko egiten zaizkien eskari berriak aztertzen ditu. Hiru urtetik gorako bizitza daukaten duktu industrialak besterik ez dira aintzat hartzen. Ekoizpen industrialaren adierazle aurreratu t da. Indize hau hazten denean, eskaria indartzen ari dela esan nahi du. Produktu iraunkor uetarako inbertsio handiak egin behar direnez, herrialdearen egoera ekonomikoak eragina emaitzetan.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EB: KONFIANTZA MICHIGANEKO UNIBERTSITATEA



Datuaren analisia


chiganeko unibertsitateak argitaratutakoaren arabera, kontsumitzaileen konfiantzaren behinarteko datuak beheranzko joerari eutsi dio apirilean, koronabirusaren pandemiak eragindako krisi ekonomikoaren testuinguruan. Indizea 71,8 puntutara jaitsi da; beherakada nabarmena da, hartuaz gero hartzen badugu martxoan 89,1ean zegoela. Azterketaren arabera, Ipar Amerikako kontsumitzaileen konfiantzak behera egin du maila sozioekonomiko guztietan.

Adierazlearen azalpena

Kontsumitzaileen sentimenduaren indizea (ICC) kontsumitzaileen konfiantza neurtzen duen adierazle ekonomikoa da, eta, beraz, kontsumitzaileen gastua aurreratzen duen adierazlea da. Michiganeko Unibertsitateak argitaratzen du hilero. Amerikako 500 etxetan ekonomiaren egoera aztertzen eta gaur egungo zein etorkizuneko finantza-egoera pertsonalaren inguruan egindako azterketan jasotako datuak ditu oinarri. Kontsumitzaileen konfiantza altuak hedapen ekonomikoa eragiten du, baina, baxua bada, hazkunde ekonomikoaren uzkurdura eragingo du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

UROPA: PMIak



Datuaren analisia

COVID-19 pandemiaren eraginak eurogunean sekula ikusi gabeko jardueraren kolapso bat ekarri zake apirillean, PMI konposatuaren indizearen aurretiko datuak erakusten duen moduan. Izan ere, 13,5 puntuko minimo historikora jaitsi da, aurreko hilean 29,7 puntutan egon ondoren. Merkataritza arabera, horrek esan nahiko luke hiruhileko BPGd-aren jaitsiera-erritmoa % 7,5ekoa dela. Zerbitzuen sektorerako adierazle honen aurretiko irakurketak marka guztiak hautsi ditu, 11,7ko minimo historikora jaitsi ondoren (26,4 martxoan); manufakturen sektorean, aldiz, 33,6an kokatu da (44,5 martxoan), 11 urte luzetan izan duen mailarik apalena. Alemaniaren kasuan, zerbitzuen sektoreko PMIa 15,9raino jaitsi da. Manufakturen sektorea, aldiz, azken 11 urteotako minimoetara erori da, 34,4 puntuko irakurketarekin (45,4 aurreko hilean). Bestalde, Frantziako jardueraren eremuan, zerbitzuen PMIa 10,4ko errekor negatibora erori da (aurrekoa: 27,4) eta manufakturen PMIa ere minimo historikoetan kokatu da (31,5; martxoan 43,2).

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hileroko erorketa profesionali eta enpresetako exekutiboentzako manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten aldea aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datuak erakusten dituzte, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia erortzen ari dela esan nahi du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

UROPA: IFO ALEMANA



Datuaren analisisa


ermania osoko enpresen konfiantzaren indizea 74,3 punturaino jaitsi da apirilean, martxoko 85,9 intu berrikusietatik. Une honetara arte erregistratu den kopururik apalena da. Indizearen jaitsiera ur egungo egoeran zein etorkizunerako aurreikuspenetan eman da. Horrenbestez, IFO kestaren apirilko datuen arabera, enpresariak uneko egoera ekonomikoaren gainean egiten iten balorazioa inoiz baino kaxkarragoa izan da, 79,5eko datuarekin, aurreko hileko 92,9aren idoren. Datozen sei hiletarako dituzten aurreikuspenak ere inoiz ez bezala hondoratu dira, 1,4raino, martxoan 79,5eko maila eman ondoren.

Adierazlearen azalpena

ipresa-giroaren Indize alemaniarra (IFO) adierazle garrantzitsua da, inbertitzaileek Alemaniako duera ekonomikoan duten konfiantza-maila neurtzen baitu. IFO Institutuak argitaratzen du ero. 7.000 exekutibori baino gehiagori egindako inkesta batean bildutako datuetan oinarritzen , gaur egungo eta etorkizuneko ekonomiaren egoerari buruzko galderekin. IFO indizeak lotura o estua dauka Industria Ekoizpenarekin, eta, horrenbestez, BPGd-aren bilakaerarekin (lehenago jitaratzen denez, aurreikus daiteke).

ASTEKO DATUEN PODIUMA

RRESUMA BATUA: PMIak



Datuaren analisia


resuma Batuan, manufakturen eta zerbitzuen PMIa espero baino gehiago jaitsi da. Analisten irreikuspenen arabera, 42 eta 29raino jaitsiko ziren indizeak, hurrenez hurren, baina askoz alagoak izan dira kopuruak: 32,9 eta 12,3, hurrenez hurren.

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hilero erosteten profesionalei eta enpresetako exekutiboei manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

APONIA: PMIak



Datuaren analisia

Ohenengo irakurketaren arabera, Zerbitzuen PMIa 22,8ra jaitsi da aurreko 33,8tik. 2007ko irailean zerbitzuen sektoreko inkesta abiarazi zenetik izan duen mailarik apalena. Bestalde, manufacturen PMIa 43,7raino jaitsi da, aurreko 44,8tik, 2009tik izan duen erregistrorik baxuena.

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hileroko erorketen profesionalei eta enpresetako exekutiboek manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

| Data | Eremua | Adierazlea | Aurreik. |
|------|----------------|--|----------|
| 4/27 | Estatu Batuak | Manuf. jarduera Fed Dallas | -- |
| 4/27 | Alemania | Hileko xehekako salmentak | -- |
| 4/28 | Frantzia | Kontsumitzailearen konfiantza | -- |
| 4/28 | Espainia | Langabezia-tasa | -- |
| 4/28 | Estatu Batuak | Ondasun aurreratuak balantza komertziala | -\$55.8b |
| 4/28 | Estatu Batuak | MoM handizkako inbentarioak | -- |
| 4/28 | Estatu Batuak | MoM xehekako inbentarioak | -- |
| 4/28 | Estatu Batuak | Konf kontseiluaren kontsumitzailearen konfiantza | 90.0 |
| 4/28 | Estatu Batuak | Richmond manufakturen indizea | -- |
| 4/28 | Japonia | BOJen politikaren oreka tasa | -- |
| 4/29 | Espainia | Urte arteko xehekako salmentak | -- |
| 4/29 | Eurogunea | Konfiantza ekonomikoa | -- |
| 4/29 | Alemania | Hileko KPIa | -- |
| 4/29 | Estatu Batuak | Hiruhilekoko BPGd urtekotua | -% 2.3 |
| 4/29 | Estatu Batuak | Egiteke dauden hileko etxebizitzaren salmentak | -- |
| 4/29 | Estatu Batuak | Tasen erabakia Erreserba Federala | % 0.00 |
| 4/30 | Japonia | Hileko xehekako salmentak | -- |
| 4/30 | Japonia | Hileko industria-ekoizpena | -- |
| 4/30 | Txina | PMI Composite | -- |
| 4/30 | Frantzia | Hiruhileko BPGd | -- |
| 4/30 | Frantzia | Hileko KPIa | -- |
| 4/30 | Espainia | Hileko KPIa | -- |
| 4/30 | Espainia | Hiruhileko BPGd | -- |
| 4/30 | Alemania | Langabeziaren aldaketa (000s) | -- |
| 4/30 | Italia | Langabezia-tasa | -- |
| 4/30 | Eurogunea | Langabezia-tasa | -- |
| 4/30 | Eurogunea | Hiruhileko BPGd SA | -- |
| 4/30 | Eurogunea | Hileko KPIa | -- |
| 4/30 | Italia | EBko KPI harmonizatua MoM | -- |
| 4/30 | Eurogunea | YoY azpiko KPIa | -- |
| 4/30 | Italia | WDA QoQ BPGd | -- |
| 4/30 | Eurogunea | EBZren birfinantzaketa mota nagusia | -- |
| 4/30 | Estatu Batuak | Diru-sarrera pertsonalak | -% 0.9 |
| 4/30 | Estatu Batuak | Gastu pertsonala | -% 3.3 |
| 4/30 | Estatu Batuak | Hasierako langabezia-eskaerak | -- |
| 4/30 | Estatu Batuak | PCE MoM azpiko deflatorea | -- |
| 5/1 | Japonia | YoY KPIa Tokion | -- |
| 5/1 | Japonia | Jibun Banken Japoniako fab PMI | -- |
| 5/1 | Erresuma Batua | Markit, EBko SA fabrikazio PMIa | -- |
| 5/1 | Estatu Batuak | Markit AEB fabrikazio PMIa | -- |
| 5/1 | Estatu Batuak | ISM manufaktura-indizea | 39.0 |

ASTE HONETAN MERKATUETAN

IRENTA ALDAKORRA

lantze negatiboko astea munuduko burtsa-indizeetan. COVID-ak eragindako testuinguru ekonomiko konplikatuari, argitaratu en makro datuen hondoratzearekin, ziurgabetasun berri bat hitu zitzaion: petrolioaren prezioaren beherakada. Europan, inera, pandemiaren ondoren ekonomia suspertzeko EBk garrirako neurrien zehaztasun faltak inbertsiogileen animoan igina izan zuen. Osasun-arloan, koronabirusaren aurkako Gilead tika bidezko tratamendu esperimentalak huts egiteko aukerak ez zuen ezer onik ekarri. Lehengaien merkatuan, AEBetan eferentzia den West Texas petrolioaren prezioak beherakada garria izan zuen ordu gutxitan, eta lehenengo aldiz, balio gatiboetan amaitu zuen. Funtsean deribatuen merkatuko osagai nikoekin lotura badu ere, eta geroago nabarmen zuzendu bazen, munduko energia-sektoreari eragin zion, eta Europako petrolio rdinaren erreferentzia, Brenta, ere kutsatu zuen. Pandemiaren akaeran, hildakoen kopuruak behera egin du, eta arreta-gune gusia berdina da oraindik: konfinamendu-neurriak noiz eta nola rduko diren, eta, beraz, jarduera ekonomikoa noiz jarriko den rriro abian.

iliak maiatzaren 4tik aurrera irekiko ditu fabrikak; Espainia ere kanaka aurrera egiten ari da. AEBetan, 6 estatutako bernadoreek negozioren irekiera partziala baimenduko dute. rgarri ekonomikoen eremuan, AEBek laguntza-sorta bat onartu te, 484.000 milioi eurokoa, ETE-ei kreditua eskaintzea ardatz ena. Krisi honi emandako erantzun fiskala, ia 3 bilioi dolarrekoa dagoeneko. Bestetik, Euroguneko ekonomia suspertzeko fondo teratu bat sortzea adostu zuten EBeko buruek. Akordioak ia ez en gutxienekoak ere bete, eta hainbat xehetasun garrantzitsu jitu gabe daude oraindik, hala nola fondoaren tamaina edo dezia eskuratzeko bidea zein izango den.

IRENTA FINKOIA:

te barruan tasek gora eta behera egin zuten arren, azken doan, bund-aren errentagarritasuna bere homologo atubatuarraren pare geratu zen (-% 0,47), eta 4 op egin zuen era, % 0,60raino. Europako herrialde periferikoek, ordea, zigorra o zuten, haien arrisku-primak gora egin baitzuen (Espainia +14), oinarrizkoen hondatze handiago baten eta Europako tzordearen bileraren emaitzen ondorioz. Italiaren kasuan, S&P- rating-a jaisteko aukerak mugimenduak eragin zituen rkatuan, nahiz eta azkenean bere horretan mantendu zen. rrenaren kokatze nabarmenak ere eragina izan zuen periferikoen erentzialetan. Kredituaren diferentzialak handitu ziren.

BISAK / LEHENGAIK:

stuinguru honetan, dollarrak indarra irabazi zuen euroaren rrean, baina Europako dibisaren balioa ere handitu zen liberaren rrean. Kanpo-gaietako ministro britainiarrak itera eman zuen 2020ko abendua izango dela EBrekin akordioa rko data; egoera ekonomikoari gehitzeko beste presio-iturri bat. hengaien merkatuan, Brentaren prezioa maila baxuagoetara ldu bazen ere, azkenean -% 14,08 jaitsi zen. Pandemiak egaiaren eskaera apaldu du eta ez dago petrolio soberakina egiratzeko gaitasunik. Horra hor jaitsiersa horien azalpena.

| INDIZEAK | 2020/4/24 | Aldaketa 2020 | Ald Seihilekoa |
|----------------------|-----------|----------------------|----------------|
| IBEX | 6.613,90 | -% 3,81 | -% 30,74 |
| EUROSTOXX 50 | 2.809,07 | -% 2,74 | -% 24,99 |
| ALEMANIA | 10.336,09 | -% 2,73 | -% 21,99 |
| INGALATERRA | 5.752,23 | -% 0,60 | -% 23,74 |
| FRANTZIA | 4.393,32 | -% 2,35 | -% 26,51 |
| ITALIA | 18.495,28 | -% 0,97 | -% 27,92 |
| Gobernuen tasak | 2020/4/24 | Aldaketa 2020 Astean | Ald |
| 2 urte | | | |
| ALEMANIA | -0,71 | -3 | -10 |
| ESPAINIA | 0,07 | 1 | 46 |
| AEB: | 0,22 | 2 | -134 |
| 5 urte | | | |
| ALEMANIA | -0,66 | -1 | -19 |
| ESPAINIA | 0,41 | 11 | 49 |
| 10 urte | | | |
| ALEMANIA | -0,47 | 0 | -29 |
| ESPAINIA | 0,95 | 14 | 48 |
| AEB: | 0,60 | -4 | -132 |
| Kreditu-spreada (op) | 2020/4/24 | Aldaketa Astean 2020 | Ald |
| ITRX EUROPE (5A) | 83,91 | 2 | 40 |
| ITRX EUR XOVER (5A) | 498,61 | 13 | 292 |

| Dibisak | 2020/4/24 | Aldaketa Astean | Ald 2020 |
|---------|-----------|-----------------|----------|
| \$/€ | 1,08 | -% 0,48 | -% 3,49 |
| Yen/€ | 116,36 | -% 0,52 | -% 4,45 |
| gpb/€ | 0,88 | % 0,61 | % 3,38 |

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.